


# Noaua!!



Martxan da webgunea:  
[www.noaua.com](http://www.noaua.com)



HAMABOSKARIA - 2002ko irailaren 13a VII. urtea - Usurbil, 142. zenbakia

# Noaua!!



Ikasturte berriarekin batera  
azala eta mamia  
itxuraberritu dugu



**Ibai Ondo Elkarteak Sanesteban  
jaietako plater tiraketan  
lagundu zuten guztiei  
eskerrak eman nahi dizkie:**

- |                          |                                |
|--------------------------|--------------------------------|
| - Arruti Ardoak          | - Eizmendi                     |
| - Urdantzi igeltseritza  | - Fagor                        |
| - Manterola txitxardinak | - San Esteban jai<br>batzordea |
| - Usurbil Autoak         | - Usurbilgo Udala              |
| - Alamandegi jatetxea    | - Egioleta sagardotegia        |
| - Tragoxka               | - Bruño mariskoak              |
| - Berasategi kafeak      | - Ingemar                      |
| - Aizpurua Autobusak     | - Telesforo ardoak             |
| - Illunbe Sagardotegia   | - Andazpe elkarteak            |
| - Saltxipi jatetxea      | - Etxebeste ardoak             |
| - Erroizpe elkarteak     | - Zumeta jatetxea              |
| - Urtinea lorategia      |                                |

**ESKERRIK ASKO**

**USURBI**   
GIDARI-ESKOLA



*%20ko deskontua matrikulan!*

**MATRIKULA ZAITEZI!**

*Kale nagusia, 5  
Telf: 943 36 27 93 - 651 70 37 71*

**✕ BASERRIETARAKO:**

Abere elikadurarako produktuen horniketa eta nekazari lanerako behar diren produktuak: ongarriak, fitosanitarioak, tresnak, baratzantza, haziak, patata, e.a.

**✕ LORAZANTZA ETA ETXEETARAKO:**

Burdindegia, plastikoak, otarrak, txakur, katu eta txori jana

**✕ BERTAKO PRODUKTUAK:**

Ardoa, txakolina, sagardoa, zainzuriak, piperrak, babarrunak,...



**ETORRI ETA  
EZAGUTU!**

**BETIKO "SINDIKATVA" ORAIN BERRITVA, JENERO GEHIAGOREKIN**

Ugarte industrialdea, 12 - Telf: 943 36 11 14 - E-mail: [alkartasuna@fcae.org](mailto:alkartasuna@fcae.org)

# Txirrikitutik



Fotos Destello, 1953. 07. 02

Udal fototeka

Antonio Fernando Irazu jaunak, 1890ko irailaren 25ean doantzan emandako etxea, hainbat urtetan Miserikordia izan zena, berehala botako dute bertan liburutegia eta kultur etxea eraikitzeko. Orain gutxi arte izan duen erabilera aurretik, ordea, etxe hau ikastetxe izan da urtetan: La Salle, Udarregi,...

Argazkia La Salle ikastetxea inauguratu zenekoa da, 1953ko Santixabel egunekoa hain zuzen ere. Ikus daitekenez frontoia oraindik estali gabe zegoen. Ikastetxeko eta Aritzetako aurrealdean berriz, Kalezarko kalbario bideko gurutze bana ikusten da, egun desagertuak.

Gainontzeko ezaugarriak ere laster desagertuko dira; izan ere eraikuntza berriak babestu behar duen ezaugarri bakarra etxeak aurrealdean duen armaria baita. Beraz, aukera baduzue etxeari begirada bat bota iezaiozue berandu baino lehen.

ZALOA ARNAIZ

## Noaua!!

**Argitaratzailea :** *Noaua!* Kultur Elkartea

Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil (Gipuzkoa)

Tlf.: 943 36 03 21 Fax.: 943 37 25 02

E-mail: noaua.k.e@euskalnet.net

Web orria: <http://www.jalgi.com/topagunea/noaua>

**Kazetarien koordinatzailea :** Imanol Ubeda

**Kazetariak:** Imanol Ubeda, Amagoia Mujika eta Agurtzane Solaberrieta

**Publizitatea:** Agurtzane Solaberrieta

**Zuzentzailea:** Eneko Harreguy

**Kolaboratzaileak:** Ines Kamino, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Agurtzane Solaberrieta, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Olatz Goenaga, Urko Manterola, Eneko Harreguy, Karmele Urdanpilleta, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Eukene Kamino, Isaak Muñoz, Olatz De Miguel, Jone Eizmendi, Jokin Zubiaur, Maria Jesus Urbieta, Iñaki Agirresarobe eta Mari Angeles Arruti.

**Bazkidetza:** Aitziber Aranberri

**Erredakzio Kontseilua:** Imanol Ubeda, Amagoia Mujika, Garikoitz Udabe, Zaloe Arnaiz eta Agurtzane Solaberrieta.

**Informatika:** Pili Lizaso eta Oskar Angulo

**Banaketa:** Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo

**Elektrikaria:** Iñaki Salsamendi

**Tirada:** 2.600 ale

**Lege-Gordailua:** SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

**Inprimategia:** Antza

Noaua! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

**Noaua! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia:**  
10.00-14.00 / 16.00-20.00 astegunetan

**AZALA**

**Aldizkariak itxura berria izango du aurrerantzean.**

## Aurkibidea

IRITZIAREN TARTEA	4. ORR.
BERRIEMAILEAK KALEJIRAN	6. ORR.
KONTZEJU TXIKIA	10. ORR.
Askatasuna Plazak itxura berria izango du.	
MEMORIA LANTZEKO IKASTAROA	12. ORR.
MATRIKULAZIO EGUNAK	14. ORR.
JON KORTA KIROLARIA	16. ORR.
SANTUENEAKO JAIK	17. ORR.
BERRIRO IKASTOLARA!	18. ORR.
AGENDA	22. ORR.
ETXEKO BERRI	23. ORR.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!



Ika Mika !!

## Ez gaituzte makurraraziko

U ne latzak bizi ditu Euskal Nazio-Askapen Mugimenduak. Euskal Herrian salbuespen-egoera ezarri dute: Batasuna legez kanpo utzi dute, egoitzak ixten ari dira, biltzeko eta antolatzeko eskubidea ukatu egin digute. Jipoiak, atxiloketak eta era guzietako biolentzia erabiltzen ari dira abertzaleon kontra polizia espainola, ertzaintza eta haiei agindua eman dietenak. Ez da giro.

Izan ere, ez baitute onartzen Euskal Herriaren askatasunaren alde duintasunez eta koherentziaz aritzea. Hemen, gure herri honetan, onargarria da Euskadi hitza ahoberokeriaz erabiltzea eta itxurak egitea. Baina Euskal Herri batua eta burujabea zintzoki defendatuz gero, egurra ematen dute, lehen eta orain. Hemen, gure herri honetan, nazionalista omen direnak kapaz dira beren polizia euskaldunen aurka jartzeko, lokalak itxiarazteko, jipoi basatiak emateko, ikurrinak zanpatu eta puskatzeko, eta manifestazioak debekatzeko. Gainera, PNV-EAko agintari poltronazaleek lotsarik ez dute dena show-a izan dela esateko. Hamaika ikusteko jaiok gara, baina halakorik!

PNV-EAko buruzagiek ez dute erreparorik neofrankistekin, GALen sortzaileekin eta euskaldunon etsai amorratuekin negoziatzeko eta haien morroi leial izateko (azken hauteskundeetan soberanistak ziren, orain autonomista soilak: nor ez da konturatu gurretan

eta tranpatan ari direla?), baina Ezker Abertzalearekin ezin omen dute hitz egin, ETAren borroka armatua salatzen ez duen artean. Hau da, dagoen arazo politikoari heldu beharrean, nahiago dute ezikusiarena egitea. Baina arazoak ez dira horrela konpontzen. Euskaldunoi gure eskubideak ukatzen zaizkigulako sortu zen eta irauten du ETAk, beraz, ETA desagerrarazteko bidea gure eskubideen onarpenean eta errespetuan dago. Hori bai, hori da benetako irtenbidea.

Batasunak ederki asko daki sufrimendua eta oinazea alde guztiek pairatzen dutela. Horregatik, bakezaleak garelako, egunez egun ari gara lanean irtenbide bidezko eta demokratikoaren alde: Euskal Herriari hitza ematearen alde. Nahiz eta Madrilgo eta Parisko gobernuak, haien morroi euskaldunek eta komunikabide gehienek gure aurkako eraso etengabe jarraitzen duten, guk uste dugu Euskal Herria eraikitzeke unea dela. Ezker Abertzaleak tinko eutsiko dio leinari, eta nahi luke abertzaleen arteko harremanak sendotzea aurrera begira.

Denon artean elkar hartuta egin behar dugu aurrera. Bestela, aurrena Batasuna, eta gero Euskal Herri osoa utziko dute legez kanpo. Ezin dugu hori ametitu. Ez gaituzte makurraraziko!

Usurbil, 2002ko iraila

**Demokrazia Euskal Herriarentzat**



IMANOL  
UBEDA

NOAUA!  
ALDIZKARIA

## Azala eta mamia

**K**aixo Noauako irakurle! Oporretan indarrak berritu ostean, gure beharretara itzuli gara jada.

Ikasturtea hasi berri den honetan, diseinu berriarekin jantzi dugu gure hamaboskaria. Horrelakoetan zaila izaten da lehen egunetik guztien oneritzia jasotzea. Urtetan sustraitu den irudia nola kendu gainetik, ezta?

Iraganekoari uko egin gabe, garai berrietara, estilo berrietara egokitu dugu aldizkariaren azala. Baina hori ez da gure kezka bakarra izan. Mamian ere erreparatu dugu. Eta besteak beste, zutabe hau izango da gaurtik aurrera Noauan topatuko duzuen atal berri horietako bat.

Sei iritzi emaile, sei herritar, sei lagun jarri nahi ditugu plaza honetan lanean. Gai librean, euren kezkek, usteak eta kontuak jasoko ditugu hamabostean behin.

Datorren aletik lanean jarriko ditugu sei lagun hauek. Bien bitartean, ongi etorri Noaua! berrira eta ikasturte berri on denoi!

**IKA MIKA** ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA.

**Hurrengo alea:** irailak 27. Ekartzeko **azken eguna:** irailak 21.

**Postaz:** Noaua! Kultur Elkartea - Borda Berri, 3 Eguzkitzaldea - 20170 Usurbil

**e-mail bidez:** noaua.k.e@euskalnet.net

Ika Mika !!

## Bota Punttuba bertso eskola umezurtz

J oan den irailaren 3an bere sasoirik onenean, 19 urterekin, Julen Saizar gaztea zendu zitzaigun. Bere berstozaletasunak eta abesteko grinak geure herriko bertso eskola bi urtez alaitu zigun. Bertso zaharrak bata bestearen jarraian abesteko zuen erraztasunak liluratzen gintuen baita bere musikazaletasunak ere. Dena den, bizi izan ditugun une gozoak betirako gogoan geldituko dira.

Negar malkozko hondar bustia  
Zebilkiagu paletan,  
Hi joanaren amorru hori  
Mailuka hustuz iltzeetan,  
Bizitza eta heriotzaren  
Kordela eten den honetan,  
Etxe sendo bat eraiki diguk  
Gure oroitzapenetan.

Irrifar alai, ahotsa lerdan  
Julenen ezaugarriak,  
Bertso eskolan biltzerakoan  
Nabarmen ziren irriak,  
Bertso zaharrak maitatu ahala  
Sortzen hituen berriak  
Hire ondoan kantu-kontari  
Bai une zoragarriak,  
Haiek oroitzu gaindi ditzagun  
Oraingo une larriak.

**Bota Punttuba bertso eskola**



JULEN SAIZAR ETA BERTSO ESKOLAKOAK  
SANTA AGENDA EGUNEZ (GOIKO LERROAN,  
LEHENA ESKUBITIK).

## Guztion erantzukizuna da

Presoa... errefuxiatua... iheslaria... tortura... kartzelako bizi baldintza gogor eta lazgarriak... sakabanaketa... istripuak... gaixotasun sendaezinak... 3/4ak beteak izan eta barruan jarraitzea... Luze jarraitu genezake zerrenda honekin. Baina oraingoan gure proposamena honako zerrenda hau luzatzea da: bideo emanaldiak, afaria, kalejira, herri kirolak, testigantza entzunaldiak, informazioa, kontzertua... Ekintza guzti hauek arrazoi bat dute; lehenengo zerrenda hain zuzen ere. Bideo emanaldia erpresioaren inguru-

koa izango da, afarian preso, iheslari eta errefuxiatuen lagunak eseriko gara, kalejira errebindikatioa izango da, herri kirolak herriko hainbat eta hainbat gazte euren eskubideak aldarrikatuko dituzte, testigantza entzunaldia gogorki torturatuta izan den baten hitzetatik jasoko dugu, egunero eskuartean izan ohi dugun informazioa bildu eta datu esanguratsuak kaleratuko dira. Partehartzea eta elkartasuna izango dira irailak 27, 28 eta 29ko asteburu horretan hitzetik hortzera erabiliko ditugunak eta hitzetatik proposatutako ekin-

tzetara bultzatuko gaituztenak. Oraindik guztia zehazteko badago ere, aste bukaera ezberdin baten aurrean gaude. Giro herriko batean murgilduz, zoritxarrez gure artean egon ezin dutenak gogoratuko ditugu. Adi, beraz, ekintzetarako deialdietara, zuk ere zure aletxo jar dezakezu eta. Guztion erantzukizuna da, guztion artean lortuko dugu!!

**Presoen Usurbilgo lagunak**

IÑAKI  
LABAKA

Txokoalde

## San Esteban dexente portatu zen

Uztaila eguraldi kaxkarrarekin agurtu genuen abuztuan hobetuko zuen esperantzarekin, Arantzazuko praileak horrela iragarri omen zuen nonbait, baino bai zera! A ze oporraldia egin diguna! Beste konturik ez da entzun, gehienak depresioa jota.

San Esteban dexente portatu zen, eguzkia agertu zen egun bakanetakoa. Oilasko biltzaileak aparte, horiek urtero pasatzen baitira, aspaldiko partez jaiak gure txokora jaitsi ziren eta auzoko frontoian Zubeldia anaien omenez herri bazkaria burutu zen. Jende mordoxka bildu zen eta giro oso alaian, trikitixa lagun, bazkalondoa ederki pasa zuten.

Bestela abuztu osoan gehienetan lainoak eta uriak izan dira nagusi. Erroizpe elkarteko kanpoko mahaiak urte sasoi honetan estimazio handia izan ohi dute baina aurtengoan jendeak ez du izan okupatzeko txandik hartu beharrik izan.

Bukatzeko, gustura ez direnak ere baserritarrak dira. Lehen tomatearekin eta piperrekin kezkatuta egon badira berandu heldu direlako, orain berriz



babarrunarekin. Eguzkiak ez badu berotzen ez da lan asko izango aurtengoak biltzen eta bestela ere gutxi izango delakoan daude.

Hilabete hau ere, eguraldiari dagokionez, traza beretxoarekin dijoa eta piperrak ondo biltzen ari badira ere, martxa honetan babarrunak urre prezioan ordaindu beharko ditugu gero.

IÑAKI  
AGIRRESAROBE

Kaleberri

## Bertso afaria Gaztetxean

Abuztuko oporraldiak amaitu ondoren, ajea, Alanerako itzulera, ikastoletako liburu berriak erosi, patrika hutsetatik gastu berriak ordaindu behar eta honelako kantu eta kantuak izaten dira ohikoak.

Dena den, urtero hala-nola aurrera ateratzen gara eta oraingoan bertso afari baten kontuarekin hastera noakizue oporraldi osteko ale berri honetan. Gaztetxeak eta Bota Punttuba bertso eskolak Imanol Epelde eta Mantxirekin bertso afaria antolatu dute irailaren 20rako gaztetxean iluntzeko 21:00-etan. Txartelak Txiriboga tabernan egongo dira hilaren 18ra arte. Giro ezin hobean igarotzeko parada ederra dago herritar ororentzat. Mantxiren freskotasunarekin eta Epeldereren ironiarekin bertso maila ederra eskaini dezakete.

Bestalde, hilaren 28an eguerdiko 14:30etan Aitzaga elkartearen Nafarroa Oinezen aldeko bazkaria egingo da. Urtean zehar saldu diren kamiseta eta produktuen ordainaren txeketa emateko aitzakiarekin, Tuterako Argia ikastolako ordezkari bat eto-

rriko da herrira. Lagun arteko ekitaldi honetan Beñat eta Unai Gaztelumendi bertsolari txapelduak eta Alex Udabe eta Jabier trikitilarien laguntza izango da. Txartelak 15 euroren truke Benta, Aitzaga eta Txiriboga har daitezke.



## Oporrak joan ikastola etorri

**U**darako oporren ondoren denboraldi berriari hasiera eman behar diogu berriz notizia freskoekin. Esan beharrik ere ez dago denboraldi honetan ere Kalejarri dagokion tarte hau edonori zabaldua dagoela, edonork idatz dezake eta nahi duena kontatu. Guk egiten badugu pentsatu ez dela hain zaila. Ikastola hasi da denontzat!

Gure auzoan San Juanak aspalditxo pasa ziren eta umeei ikastolara hasteko garaia iritsi zaie. Denbora tarte horretan auzoko txikienak egunero ibili dira zalapartaka Kalexarko izkin guztietan barrena, batzutan bizikletan, bestetan korrika, beste batzutan eguraldi txarrarengatik aterpe bat bilatu eta margoekin nork marrazki polit eta koloretsuagoa egin jolasten.

Pentsatzen jarrita, ez litzateke harrizkoa izango auzoan Picasso, Dalí edota Zumetaren pareko artistaren bat ateratzea, izan ere, udara honetan marrazkiak egiteko aitzakiarik ez zaie falta izan, egin duen eguraldi sargori eta eguzkitsua ikusita gero!

Kontuak kontu, esan beharra dago beraien joko

eta kantuekin auzoari bizi puntu polit bat ematen diola "terremoto" talde honek. Talde majoa da gainera! Gero jaiotze tasa behera doala esango dute, gure auzoan ez da asko nabaritzen ba!

Bestalde, aipatzekoa da abuztuaren 15ean ospatu zela 16ari dagokion San Roke eguna. Egun borobila izan zen. Asto karrerak lehendabizi goizean eta auzo bazkaria gero. Auzotarren erantzuna paregabea izan zen eta arratsaldeko erromerian giro aparta jarri zuten Epelde eta Larrañaga trikitilariak. Atera kontuak giroa nolakoa zen, eta jendea nola pasatzen ari zen, asko izan baitziren eguzkia sartu zela ohartu ez zirenak! Horrela, erromeri bukaezin bati jarraipena eman zioten Peña-Pagola elkartearen. Badago mugimendua bai Kalejarren!

Hauek izan dira beraz uda parteko kontuak. Umeak ikastolara, gehienentzat oporraldien amaiera eta betiketatasunera buelta, baina umorea eta jai giroa ez zaizkigu faltako, hori seguru! Kontu berri gehiago hurrengo kroniketan.

Kalejar



ANDONI  
UDABE

## Aurrera begira

**A**abuztuko oporraldia pasa, eta hemen gara aurrera begiratu beharrean. Esan behar da azken bi hilabete hauetan ez zirudiela udaran ginek, benetan eguraldi kaskarra egin duenez, gogoan izateko modukoa izan da.

Hogeita hamar urte direla diote, horrelako beste bat izan zela, ahaztu egiten ditugu antzeko gauzak eta hala hobe. Abuztuaren 25ean, igandea zen, 300 litrotik gora bota zuen metro karratuko. Biharamunean, euri jasaren ondorioz, kaleak izan ziren Donostian eta inguruetan. Eta horrela, eguzkirik gabeko egun asko izan dira aurtengo uda honetan. Horrek ustegabeko buru haustek eman dizkio hondartza eta udaratik bizi diren jendeari.

Gure auzoa ere, bakarti bihurtzen da. Bi hilabete hauetan, familiak joan egiten dira noranahi, eguzki printzak bilatzera eta batzuek zortea izango zuten agian, besteak eguraldi txarrarekin konformatu egin behar. Baina denak ematen duela buelta esan ohi da, eta orain hemen gara buru belarri, udazkena prestatzen. Haurrak ikastolara joan behar, eta dena

antolatzen. Gainontzekoan, bakoitza bere beharretan murgilduta, bizitzan aurrera segi behar.

Gaia aldatuz, zerbait eskatu nahi nuke, auzoarentzat, alegia. Herrian lur azpian dagoen antzeko zabortege organiko bat beharko genuke. Horrela, agian, aukera bikaina izango genukeela egunean zehar etxeko zaborrak atera ahal izateko, zeruari begira egon beharrik izan gabe. Aldi berean, auzoko bazterrak txukunago egongo liriateke eta auzotarrak eskertu egingo genuke, benetan. Asko itxaron behar ote dugu?



Atxegalde



MARIA  
JESUS  
URBIETA





AGUSTÍN  
ESNAOLA

Santuenea

## Auzoko festak

**I**bai-Ondo elkarteak, uztailearen 31ean San Inazio egunean, urtero bazkideen arteko bazkaria ospatu ohi du. Egun honetan elkarte sortutako eguna ospatzen da. Aurten, 1953ean bazkide fundatzaileak ziren bost auzotarrei omenaldi txiki bat egitea erabaki zuen direktibak. Auzotar hauek Ramon Zulaika, Balentin Aldalur, Antonio Altuna, Raimundo Lasa eta Enrike Uli dira. Beraien lana eskertu besterik ez zaigu geratzen. Mila esker.

Udara honetan Ibai-Ondo elkarteak, urtero bezala, San Estebango jaietan plater tiraketa antolatuta du. Arrakasta handia izan zuela esan dezakegu, 94 tiradore izan baitziren gutzira.

Auzoko festak antolatu ditu Ibai-Ondo elkarteak ere. Irailaren 21ean eta 22an ospatuko ditugu eta jendearen parte hartzea oso garrantzitsua da beste urteetan bezalako arrakasta izateko. Antolatu diren ekintzak asko dira, garrantzitsuenak aipatuko ditut: umeentzako jokuak, mus txapelketa (sari ederrekin), herri kirolak eta herri bazkaria igandean, larunbat gauen musika edukiko dugu "Imanol"



musika jartzailearekin. Hau guztia sardinak, haragi eta txorizo egosia eta piperrak dastatzeko aukerarekin tartekatuko dugu.

Ez dut uste kezatzeko moduan gaudenik auzotarrak, beno agian musikaren zaratarengatik baten bat. Barkatzen jakingo dutela uste dut, aste bukaera bat bakarrik baita urtean. Bestalde asko eskertu behar dugu antolaketa hau aurrera egiteko lana egin duenari.

Ondo pasa auzoko festetan!

## Jaien balorazioa



EIDER  
JAUREGI

Urdaiaga

**A**urtengo San Estebanen etorrerarekin agurtu Agenuen Noauaren azken alea eta oraingoan San Esteban jaien balorazio txiki bat eginaz nator.

Aurtengo jaiak aurreko urteetan ez bezala, euririk gabe pasa ditugu, sinestekoa ez bada ere, aurtengo udan egin duen eguraldia ikusita. Jai egun guztiak eguraldi zoragarriaz igaro ditugu baina dagoeneko jakina den bezala herri eta auzo txikietako jaietara gero eta jende gutxiago hurbiltzen da. Inork ez daki zergatik gertatzen ari den fenomeno hau baina egia esan, guk jai batzordean gaudenok ongi nabaritu dugu. Egunez antolatutako ekitaldietan jendea hurbildu da, baina ez aurreko urteetan bezala, gaueko saioetan, berriz, zer esanik ez, lehen orduan gurasoak haurrekin eta ondoren inor ere ez.

Guretzat jaiak antolatzea ez da batere erraza. Jaiak denon gustokoak egiten saiatzen gara, baina antolaketa lanetan geroz eta jende gutxiago gaudenez, gero eta zailagoa da. Guztira 10-12 lagun izango gara. Ez gaitu inork behartzen etortzera, guk jaiak nahi ditugulako baizik. Baina aurten ikusi duguna-



rekin badirudi gu bakarrik garena jai hauen erantzule: zerbait gaizki badoa, gurea da errua; kaferik ez badugu, gurea da errua; plaza zikina badago, gurea da errua eta abar.

Oso erraza da kritikak egitea, baina errazagoa izango litzateke zuen laguntzaz jaiak aurrera ateratzea. Datorren urtean jaiak hobek izan daitezela nahi dugu, baina oraindik ez dakigu nola egin. Norbaitek ideiarik balu, jar dadila jai batzordeko kideren batekin kontaktuan, esku zabalik hartuko zaitugu. Besterik gabe eta gonbitea luzatu ondoren agurtzen naiz.



## Egunpasa Bilbora

**A**kabo oporrak. Ikasturte berrian sartu gara eta Afestak ere hasi zaizkigu inguratzen. Azkar pasatzen da denbora eta konturatu baino lehen hementxe izango dira aurtengo San Praixkuak. Gazte jendea hasi da egitaraua prestatzen. Eta aurtun, frontoia izango da protagonista nagusia. Obrak behintzat oso aurreratuta daude.

Dena den, hurrengo alean izango dituzu jaietako xehetasun gehiago. Oraingoan ere, Arrate egoitzari buruzko bi aipamen egingo ditut. Lan handia baita egoitza honetan egiten dena.

Hilabete honetan bi dira aginagarren zerbitzura dagoen egoitzak antolatu dituen irteerak. Lehenik, Gipuzkoako Jubilatuen XII. Ibilaldia aipatuko dut. Ordizian egiten da ibilaldi hau eta jende askok parte hartzen du. Aginagatik ere urtero joaten da taldetxo bat. Aurtun ibilaldia irailaren 14an izango da eta Arrate egoitzako hainbat lagun izango dira Ordizian.

Dena den, ibiltzea gustuko ez baduzu eta estropada zalea bazara, beste irteera honetan ederki pasako



duzu. Kontxako bandera pasa bada ere, arraun denboraldia oraindik ez da amaitu. Bilboko bandera jokoan izango da irailaren 21ean. Eta Arrate egoitzatik egunpasa antolatu dute aitzakia horrekin. Irailaren 21ean, beraz, denok Bilbora estropadak ikustera! Bazkaria Montenegro jatetxean izango da. Plana gustukoa baduzue, izena eman ahalik eta azkarren Arrate egoitzan bertan.

Anima zaitetze!

Aginaga



**MARIA  
ANGELES  
ARRUTI**

## Egunerokotasunaren xarma

**U**dar amaitu eta kurtso berria hasten den honetan berri gutxi dugu Zubieta alde honetatik. Udarako festa, opor eta mugimenduen (edo batzuentzat lasaitasunen) ondotik berriz ere betiko eginbeharrei eusteak ekartzen duen itxura hartuko du beste behin ere Zubietak; goizez haurrak Herri Eskolara eramanez, helduxeagoen kotxe zein bizikletazko joan etorriak Lanbide Heziketa alderuntz, jatetxe, taberna eta sagardotegi inguruetara (hori ere ez baitugu gutxi hemen) doazen furgoneta edo kamioi hornitzaileak...

Arratsaldez aldiz, plazan pelotarekin pareta bate-tik bestera entrenatzen ari diren mutilez gain berriz ere lanetik irten ondoren Zubieta aldera paseotxo bat ematera, korrika egitera edota bizikletan ibiltzera gerturaturikoeekin aurkituko gara ziurrenik, ia iluntzeraino.

Baina egunerokotasun horren aurrean, aldaketaren bat ere sumatuko du baten batek, batez ere udara osoan zehar hona gerturatu ez denak. Izan ere, Herri Eskolatik aurrera konponduriko bidez

gain, etxe berrien eraikuntzaren hasiera ere sumatuko baitu.

Oraindik etxeak amaitzerako denbora nahikotxo igaro behar badu ere, laister bizilagun berri ugari izango ditugunari buruz ez dakit jende askok pentsatu al duen. Izan ere, Zubieta herri txikia izanik jende berria etortzea berehala nabarmenduko baitugu, baina tira, lehen aipaturiko egunerokotasun horren xarma berdintsua izango delakoan nago.




Zubieta



**OLATZ  
DE MIGUEL**

# Askatasuna Plaza apaindua izango da



**A**skatasuna Plazaren itxurak zeresan ugari eman du eraiki egin zen une beretik. Adierazpen artistiko baten bitartez apaindu asmoz, Udalak ideia lehiaketa bat jarri zuen martxan. Lau izan dira aurkeztu diren proiektuak baina Carlos Zabalaren "Beira" proiektua izan da epaimahaiak hobestu duena.

Askatasuna Plaza erakargarri egitea izan da lehiaketa honen asmo nagusia. Epaimahaiko lagunek lau proiektu aztertu dituzte eta Carlos Zabalarena aukeratu dute. Dena den, proiektu irabazleak ez du porlana ezkutatu. Txokoalden bizi den artistak keramikaz eta beiraz eginiko irudiak txertatu baititu porlanean. "Beira" ( hala izena du proiektu irabazleak) ez da egun bate-tik bestera gauzatu. Prozedura mailakatu izango da. Hau da, piezak egin ahala ipiniko direla. Udal iturriek jakinarazi digutenez, artistak ez du proiektuaren xehetasun handirik eman nahi. Sorpresa mantendu nahi da. Hala ere, "Beira" lanean Carlos Zabalak herriko ohiturak eta bitxikeriak jaso dituela aurreratu dezakegu.

Dagoeneko sinatu da Udala eta artistaren arteko hitzarmena. 28.840 euroko aurrekontua du egitasmo honek eta hitzarmenaren arabera, 10 hilabeteko



ASKATASUNA PLAZA OSOA ERABERRITZEAZ GAIN, HAURRENTZAKO JOKO BERRIAK ERE IPINI DIRA.

epea izango du "Beira" gauzatzeko.

Arestian aipatu bezala, lau izan dira aurkeztu diren ideiak: "Newplace", "Lantzen", "Txalapartaren Askatasunaren hotsa" eta Carlos Zabalaren "Beira" saritua.

"Newplace" proiektuak txapa galbanizatu bidezko estalki bat jartzea proposatzen zuen. Argiztapen sistema bat ere jasotzen zuen proiektu honek. "Lantzen" ideiak belaze berezi bat egitea jasotzen zuen. Ura, landareak eta argia

lirateke osagai nagusiak. Mantenuen herritarren partehartzea proposatzen zuten "Lantzen"-eko kideek. Eta "Txalapartaren Askatasunaren hotsa" egitasmoak hormigoia margotu eta harrizko eskultura bat ipintzea proposatzen zuen. Eskultura horrek txalapartari bat irudikatuko luke.

Azkenean, Carlos Zabalaren ideien alde egin du epaimahaiak.

IMANOL UBEDA



**txirriStra**  
TABERNA

- Plater konbinatuak
- Ogitaratekoak
- Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Telf: 936 36 04 66



**Urtinea**

*Loreak - Lore landareak*

*Lore sortak - Koroak*

San Esteban  
Tlf.: 943 36 22 55




## Enpresak euskalduntzeko egitasmoa ez da eten

**U**dalak enpresen sektorea euskaldundu asmoari sendo heldu nahi dio. 2000. urtean lehen urratsa eman zen eta ikasturte berrian jarraipena izango du ekimen honek. Emun enpresak bideratuko du lan hau eta 6.010 euroko laguntza jaso du horretarako.

Emun eta Udalak sinatu duten hitzarmenaren arabera, hiru hilabeteko epean burutuko du bigarren urratsa. Funtsean, enpresa bakoitzaren egoera aztertu eta planifikazio bat egingo da enpresa bakoitzean. Koldo Lizaso euskara zinegotziak azaldu digunez, enpresa bakoitzari egokitutako planak izango dira: "planifikazioa enpresekin adostua izango da".

Koldo Lizasok azaldu digunez, "enpresetan lan handia dago egiteko. Orain arte ezer gutxi egin baita esparru honetan". Hori zuzendu asmoz, Emunek lehenbizi diagnosi bat egin zuen. Euskararen egoera, ezagutza, erabilera eta langilegoaren jarrera ezagutu



GRAFIKODAN IKUS DAITEKEEN BEZALA, IDATZIZKO HARREMANETAN EUSKARA EZ DA IA ERABILTZEN.

ostean, orain ekimen zehatzak finkatzeko unea iritsi da. Hor kokatu daiteke Emun-ek eta Udalak sinatu duten hitzarmena.

Aurrera begira gainera, helburuak gauzatzen diren ala ez frogatu arren, jarraipen zehatz bat egingo da. Batzorde bat osatuko da sindikatu, langile eta sektoreko agente ezberdinekin batera.

### AZOKA BEREZIA EGINGO DA URRIAREN 11 N

Bertako baserritarrek egindako produktuak izango dira nagusi urriaren 11erako Udalak antolatatu duen azoka berezian.

### UDALETXEKO TELEFONO ZUZENAK

Orain arte udaletxeko dei guztiak zentralitatik bideratu dira. Aurrerantzean ere hala egingo da betiko zenbakian: 943 37 19 51.

Baina Udalak bestelako sailen telefono zuzenak zabaldu ditu.

Zentralita:  
943 371 951/ 943 371 990.

Idazkaritza:  
943 371 417.

Kontu-hartzailetza:  
943 371 349.

Euskara:  
943 371 999.

Hirigintza:  
943 371 912.

## Galdeiozu!!



USURBILGO UDALA

IKASTURTE BERRIAREKIN BATERA ATAL BERRI BATZUK JARRI DITUGU MARTXAN. "GALDEIOZU!!" AHOZKO ESAERAREKIN IZENDATU DUGUN HONAKO HAU, BESTEAK BESTE.

Udala eta herriaren arteko zubi-lana egiteko zabaldu genuen Kontzeju Txikia. Horretan sakondu asmoz, honako leiho hau zabaltea otu zaigu. Askok dira herritarroi eguneroko bizitzan sortzen zaizkigun zalantzak, galderak... askotan kazetarioi alde egi-ten diguten duda-mudak. Horregatik, udaletxeko politikari zein teknikariei nahi adina galdera egiteko aukera eskaini nahi dizuegu. Galderak Noaua!ra igorri behar dituzue eta guk egingo dugu herritarra eta udalaren arteko bitartekaritza lana. Nahi izanez gero, buruan duzun galdera edo kezka hori era anonimoan argitaratzeko aukera dago; hori bai, gutxienez Noaua!ko kide batek galdera egilea nor izan den jakin behar du. Idatzian zehaztu ondo zein den galdera edo kezka, eta ahal bada, nori edo zein batzorde-dera zuzenduta dagoen.

Noaua! Kultur Elkarte - Borda Berri, 3 Eguzkitzaldea - 20170 Usurbil / noaua.k.e@euskalnet.net

# Memoriaren lezioa ikasteko ordua



**SANTUENEA, AGINAGA ETA KALEBERRIKO JUBILATUEN EGOITZETAN BANATZEN DIRA MEMORIA BERRESKURATZEKO LEZIOAK. IAZ GUZTIRA EHUN BAT LAGUNEK HARTU ZUTEN PARTE. IKASTURTE BERRIA URRIAN HASIKO DA.**

**N**ahiko berria da memoria lantzeko ikastaroen joera. Duela 10 bat urte iritsi zen Euskal Herrira. Iaz 50 urtetik gorako 100 bat lagunek parte hartu zuten soilik Usurbilen. Josune Maiora da hiru urtez Usurbilen aritu den irakaslea. Urrian hasiko da berriro lanean eta gogoan izan ikastaroa doanekoa dela.

## Nondik datoz ikastaro hauek?

Bi arrazoiengatik jarri zen martxan: lehenik eta behin, kezka handia ikusten zelako 50 urtetik gorakoen artean.

Memoria galtzen zihoaztela, mantsogotu egin zitzaizela, gauzak lehenago ahazten zitzaizkiela... Beste arrazoia jubilazioarekin lotuta dago. Pertsona askoren aktibitatea murriztu egiten da eta horri erantzun bat eman behar zaio.

## Beraz, ez da jubilatuentzat bakarrik?

Zahar egoitzetan ematen da baina baita etxeoandreen elkarteetan, Guraso Elkarteetan... Jende gaztearentzat ere egokia da.

## Zertan oinarritzen da ikastaro hau.

Ikastaro honen filosofia da memoria

ezagutu, nola funtzionatzen duen eta jakin, zer egin dezakegun momentu jakin batean gauzak ahazten ditugunean. Askotan ez dakigu depresio baten ondoren memoria atzendu egiten da eta askotan ikaratu egiten gara, eta txarrena pentsatzen dugu. Alzheimer bat edo etorri ote zaigun. Ondorio naturala da depresioarena. Memoria hobetzeko teknika batzuk irakasten diegu.

## Zein da metodologia?

Gutxi gora behera, ordubeteko lezioak dira, astean behin. Lehen hamar



**GREGORI SARASOLA,  
SANTUENEA**

Santueneako egoitzan 12 bat lagun dira ikastaro honetara hurbildu ohi diren lagunak, tartean, Gregori Sarasola. Oso gustura ikusten zaio eta, gazteen antzera, "karpeta eta guzti etortzen gara".

Ikasteaz gain ondo pasatzen dutela adierazi digu. Auzotarrak animatu nahi ditu guztiontzat atea irekita daudela esanez. "Zeozer ikasiko nuelakoan apuntatu nintzen eta ez naiz damutzen", adierazi digu Gregorik.



**MANUEL ETA SIMONA  
MAIZ, KALEBERRI**

Ikasle garaian bezala, etxerako lanak ere izaten direla adierazi digute Manuel eta Simona Maizek. Hori bai, ez dira halaberrez egin beharrek, norberak duen denboraren arabera. Aurreko ikasturteetan parte hartu duten ikasleetako bi dira. Ikasturtea atsegina egin zitzaizela esan digute, "irakaslea zoragarria da eta giroa lagun artekoa da".

Biei ikastaroa lagungarria egin zaie.



**IXIAR IZAGIRRE,  
AGINAGA**

Aginagako egoitzan asko dira egiten diren ikastaroak, irteerak, erakusketak... Mugimendu handia izaten da ikasturtean zehar. Memoriaren ikastaroa astean behin ematen da Aginagan. Iaz 18 bat lagun bildu ziren. Ixiarrentzat ere ikastaroa interesgarria eta entretengarria da oso.

Orain lasaia bizi dela esan digu Ixiar Izagirrek, ikasitakoak asko laguntzen diolako.





**JOSUNE MAIORAK  
ZUZENTZEN DU IKAS-  
TARO HAU. AURTEN  
LAUGARRENA IZANGO  
DA ETA IZENA EMATE-  
KO EPEA ZABALIK  
DAGO JADA.**

minutuak teorikoak dira. Eta ondorengo minutuetan gimnasia mentala egiten dute, joko eta ariketen bidez. Horren asmoa da memoria lantzea, memoriari errepaso bat ematea. Atentzioa, kontzentrazioa, juizioa, logika... hori guztia lantzeko asmoz. Burua lanean jarri. Ariketa atseginak dira eta taldearen mailara egokituta daude. Euskaraz eta erdaraz ikasteko aukera dago. Talde berdinean 60 urtekoak eta 90 urtekoak topatuko dituzu. Garbi uzten zaie bakoitza dela bere irakaslea; berak bada-ki zein mailatan dagoen, eta hobwto egiten saiatu behar du, saio bakoitza azkarrago egiten.

### **Beraz, astean behin ordubetez aritzen zarete.**

Bai baina oso gutxi iruditzen zaie eta etxerako lana eskatzen didate. Jendeak oso ondo parte hartzen du, izugarriko errespetoa dago eta ia ia familia baten antzekoa gara. Oso harreman ona dago eta hori lagungarria da. Jendeak interes eta konstantzia handia erakutsi dit. Hori gabe ikastaroak ez du zentzurik. Klaseak ez dituzte galtzen. Eta horrela, lan egitea oso erraza da.

### **Memoria galtzarena kezka handia dela sumatu al duzu?**

Adinean aurrera egin ahala, jendeari

kezka areagotu egiten zaio. Jakin nahi du "niri gertatzen zaidana normala al da?" edo "ze gertatzen ari zait?". Bere ingurukoak antzekoak direla eta gehienetan beldur horiek arrazoiz gabeko beldurrak direla konturatzen dira. Zergatia ezagutzen dute eta baita horri buelta emateko teknikak ere. Giltzak ahazten dituzula edo izenekin oso txarra zarela? Ikasten dugu hori bideratzen. Hori ikasi eta jendea guztiz lasaitzen da. Eta lasaitasun horrek satisfakzio handia ematen du.

## **"Emakumeak datoz nagusiki"**

### **Zeintzuk dira gehienetan errepikatzen diren zalantzak?**

Ez dituztela izenak gogoratzen. Gauzak non utzi ditugun, giltzak, betaurrekoak... adin batetik aurrera medikamentuekin ere kezka handia sortzen da, "eguerdiko pilula hartu al dut?". Emakumeetan askotan gertatzen da akaso sukaldetik egongelara joan eta ez dakitela zertara joan diren. Handik denbora batera gogora ekartzen dute maindireen bila abiatu direla. Hori aldi berean ehun mila gauza egiten ditugulako izaten da. Sukaldean gaude, egongelan gaude... Zentzu horretan, emakumezkoak gehiago izaten dira ikasleak. Baina etortzen diren gizonak ere oso konstanteak dira.

### **Beste herri batzuetan ere ibiltzen zara, ezta?**

Amaran ari nintzela Udalaren ekimenez jarri zen martxan ikastaro hau Usurbilen. Udaletxe honetatik egiten den bezalako eskaintzarik ez dut ezagutu beste inon. Ahalegin handia egiten ari da, herritarrentzat ikastaroa doanekoa baita.

### **SANTUENEAN**

- Ostegunetan, 19:00-20:00  
ZAHAR EGOITZAN.

### **AGINAGAN**

- Ostiraletan, 16:30-17:30  
ZAHAR EGOITZAN

### **KALEBERRIN**

- Ostiraletan, bi talde:  
18:00-19:00/19:00-20:00  
ZAHAR EGOITZAN.

**Izen-ematea:** Egoitzetan edota  
Gizarte Zerbitzuetan: 943 377 110

**Ikasturte hasiera:** urrian.

# Lanbide ikastaroak urrian hasiko dira

**O**porretara joan baino lehen iragarri genuen bezala, Usurbilgo Lanbide Ikastetxeak hainbat ikastaro prestatu ditu aurtengo ikasturterako. 16 eta 21 urte bitarteko sektoreari zuzendutako ikastaro hauek praktikak egiteko aukera ere ematen dute. Izena emateko epea zabalik dago baina kon-tuan izan plazak mugatuak direla.

Irailaren 20an amaituko da izena emateko epea. Interesaturik daudenak udaletxera jo beharko dute.

Ikastaro hauek izaera teorikoa gainditzen dute, izan ere, ikasleek enpre-tan praktikak egiteko aukera baitute. Ez hori bakarrik, ikastaro hauetako ikasleei berriro ikasketen mundura itzultzeko bidea ere ematen zaie: DBH graduatu titulua eskuratzeko laguntza eskainiz edota lanbide heziketan murgiltzeko aukera irekiaz.

Lasarte-Oria, Andoain, Urnieta, Hernani eta Astigarragako udalerriekin eta Eusko Jaurlaritzarekin batera anto-latu dira ikastaro hauek guztiak. Aurten, sukaldaritzaren eta gozogintza zein ile-apainketa eta estetika ikastaro-ak eskainiko dira Agerialden. Lasarten, aldiz, obrako zurgintza eta igeltseritza-koak. Andoainen, galdaragintza eta autoen txapa eta pintura; eta Hernanin, autoen mekanika.



ILE APAINKETA ETA ESTETIKA IKAS-TARDA AGERIALDEN ESKAINIKO DA.

## AURTENGO ESKAINTZA

Sukaldaritzaren eta gozogintza\*, Ile-apainketa eta estetika\*, obrako zurgintza, igeltseritza, galdaragintza, autoen txapa eta pintura, autoen mekanika.

## IZEN-EMATEA

Irailaren 2tik 20era, Udaletxean. 16 eta 21 urte bitarteko gazteei, ikasten ari ez direnei edota langabezia dau-denei zuzendua.

\*Ikastaro hauek Agerialden.

## Amaitu da Zuberoaren aldeko kanpaina

**X**iberoa Garatzen! egitasmoa-rekin bat eginez, lan talde bat osatu zen herrian joan den apirilean. Helburu nagusia, auzo-lanaren bidez Usurbilgo herriari zegokion diru ekarpena biltzea.

Plangintza bat egin zen eta segituan lanean hasi ziren. 250 euro-ko 35 ekarpen bildu behar ziren Usurbilen. Guztira, 8.750 euro.

Aise gainditu da kopuru hori, izan ere, kanpaina amaieran 10.022 euro izan baitira bildu direnak. Dagoeneko Xiberoa Garatzen! kanpainako arduradunen esku dago dirua. Usurbilen eta beste herrietan bildutakoarekin Zuberoa ekonomikoki, kulturalki eta sozialki indartu nahi da.

Gure herrian lanean aritu den taldeak eskerrak eman nahi dizkie Zuberoaren aldeko kanpainarekin bat egin duten guztiak: kirol eta kultur elkarteak, instituzioak (Udala, Zubietako Herri Batzarra), jai batzordeak eta egitasmo honen alde aritu diren gizabanako eta talde guztiak.

Kanpainak iraun duen bitartean bi herri afari egin dira eta hauek ere diru-iturri izan dira.

**HERRIKO TABERNA**  
Astebukaeretan bokatak, plater konbinatuak, pintxo beroak...  
Telf. 943 36 02 17

*Euskaral presioak etxera!*

**gorriti**  
EDARITEGIA

**kafe berezia**

San Esteban kalea, 8  
TLF 36 27 70

20170  
USURBIL



# Euskaltegia, berriz ere martxan

**B**ukatu da udara eta iritsi da, berriz ere, "pilak kargatu" eta betiko martxari heltzeko garaia. Gu ere Etumeta AEK euskaltegian hasi gara dagoeneko martxan eta ekin diogu matrikulazio kanpainari. Horrela bada, euskara ikasi, sakondu edo aberasteko asmotan dabilen edonori gurera hurbiltzeko gonbitea luzatu nahi diogu.

Batek baino gehiagok pentsatuko du zaila dela, astirik ez duela, garestia dela... Hori guztiagatik gure ordutegia egun osora zabaldua dago talde bakoitzak zein ordutegi nahiago duen erabaki dezan. Aipatu, baita ere, Usurbilgo Udalarari esker, %80ko asistentzia betetzeko, gurasoek zein langabetuek matrikula dohainik izango dutela. Zailtasunari eta erritmoari dagokienez esan gure metodologiaren arabera, norberaren eta taldearen beharrak direla abiapuntu nagusiak, beraien helburuak



LASTER BETEKO DIRA BERRIRO ETUMETA EUSKALTEGIKO GELAK.

gureak izanez.

Bestalde, aipatu nahi genuke lan mundua ere jorratzen ari garela eta Txokoaldeko Berriola enpresan hirugarren urtez arituko garela euskara eskolak ematen. Bertan euskararen normalizazio plana martxan jarri zutela eta, 22 ikasle izan ditugu 3 taldetan banatuta. Hauei, jakina, euskaltegia izan ditugunak gehitu behar zaizkie, guztira 66 ikasle aritu direlarik.

Beraz, anima zaituzte zu ere eta etorri gurera. Informazio zabalagoa nahi izanez gero deitu 943 37 20 01 telefonora.

## LANEAN DA JADA MUSIKA ESKOLA

Irailaren hasieran zabaldu zen Zumarte Musika Eskolako matrikulazio kanpaina. Ikasturte berriko eskaintza zabala da. Informazio gehiago eskuratu nahi baduzu deitu telefono zenbaki honetara: 943 371 594.

## BEHOBIARAKO KAMISETA BAT ATERA NAHI DA

Kirol hitzordu garrantzitsuena da Behobia-Donostiako lasterketa. Azaroan egin ohi da baina herritar batzuk hasi dira aurtengo edizioa izango dena prestatzen. Gainera, asmo bitxi bat jarri dute martxan: Usurbil izenpean, herriko irudi batekin kamiseta bat argitaratzea. Horieta bat eskuratu nahi baduzu kiroldegitik pasa beharko duzu dagokizun neurria zehaztera. Hori bai, kamisetaren eskaera egiteko irailaren amaiera bitarteko epea jarri da. Prezioa 18 eurokoa izango da.

## PATXI SEGUROLA, FLEURYKO ESPETXERA

La Santétik Fleuryko espetxera eramanez Patxi Segurola Mayoz. Idatzi nahi badiozu hemen duzu helbide berria:

Segurola Mayoz, Patxi  
n. 312000 F-D5, G 1-42  
M. A. H. Fleury-Mérogis  
9, allée des Peupliers  
91705 STE. Genevieve Des Bois  
Cedex-France

## Giroa bero Baba Beltz Txiki Egunean



KOFRADIA MODUKO BATEAN BILTZEN DIRA BABA ZALE HAUEK.

**A**spaldiko ohiturari jarraituz, baba beltz txikiari gorazarre egin zitzaion Andazpe elkartean.

Bildutakoek Felix Sarasolak prestaturiko baba beltzak, isatsa, sorbetea eta kafea dastatu zuten. Bazkalostean, lagun giro ederrean gogora ekarri zituen Jose Antonio Azpirozek baba txikiari jarritako hitzak eta doinuak (datorren alean, "Berriketan" atalean topatuko duzue).



**Kima**  
MASAJE LEKUA



Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

Kale nagusia, 44- behea  
LASARTE-ORIA

TEL. 36 61 97

## ESTETIKA ZENTROA

**LOURDES LARRAÑAGA**

- Depilazioak
- Aurpegiko tratamendua
- Manikura
- Betileen permanentea eta tintea
- Azaleko garbitasuna
- Makilajea
- Masajeak
- Solariuma

Irazu kalea, 12-behea  
Telf: 943 36 28 87

# Jon Korta

MENDI BIZIKLETAN GIPUZKOAKO  
TXAPELDUNA IZAN DA AURTEN



**G**ure protagonistak 18 urte ditu eta etorkizun oparoa aurretik. Aurtan, Gipuzkoako Txapelduna izan da, Euskadi Open lasterketan ere oso ondo ibili da eta Espainiako Txapelketetan lan txukuna egin zuen. Dena den, denboraldia ez da amaitu oraindik Jon Kortarentzat. Urrian egingo den Pirinioetako Open-ari ekiteko gogo biziz dago.

## Noiztik zabilta mendi bizikletan?

Ni txiki-txikitatik hasi nintzen aitarekin bizikletan baina beti mendiko bizikletan. Alebinetan korritu nuen errepi-dean eta mendiko bizikletara pasa nintzen. Baina konpetitzen duela urte pare bat hasi nintzen.

## Kirol gogorra aukeratu duzu, ezta?

Bai, hala da. Karrerak 25-30 kilometroak dira baina dena eman beharra dago. Neguan karreteran entrenatzen dut. Eta txispa pixka bat hartzeko mendira jotzen dut. Anaia, lehengusuak eta beste hainbat lagunekin batera joaten naiz mendira.

## Noiz amaituko da denboraldia?

Karrerak martxoaren hasieran hasten dira eta abendura bitarte irauten du denboraldiak. Jendeak era ezberdinean planifikatzen du denboraldia. Uztailean, Espainiako Txapelketaren ondoren gelditu egin nintzen eta orain hasi naiz berriro. Hilabeteko geldialdi bat egin dut eta laster Pirinioetako Opena korrituko dut.

## Espainiako Txapelketan ere parte hartu duzu.

Errubera zulatu egin nuen eta ez nintzen aurrean sartu, maila handia dago. Andaluziarrak eta katalanak oso ondo



ESPAINIAKO TXAPELKETAN ERRUBERA ZULATU BAZUEN ERE, POZIK DAGO OSATU ZUEN LASTERKETAREKIN.

dabilta. Euskadikoen artean ni hirugarren egin nuen. Nire erreferentzietan karrera ona egin nuen.

## Dena den, Gipuzkoako Txapelketa eskuratu duzu aurtan. Gustura egoteko moduan, ezta?

Bai, hori maiatzaren amaieran izan zen Pasaian. Euskadi Open frogan ere gustura ibili naiz. Martxotik uztaile hasiera arte irauten dueta laugarren amaitu nuen.

## Hori motibagarria izango da.

Bai horrek laguntzen du, gehiago entrenatzeko gogoia ematen dizu. Selektzioan ere egon naiz baina ez digute kasu askorik egin. Hala ere, errepi-dekoekin konparatuz "anai txikiak" gara gu.

## Zergatik diozu anai txikiak zaretela?

Ez dugu laguntzarik. Tristeza da selektzioarekin joan eta lasterketa amaieran arropa itzuli beharra. Pentsa, ze ilusioa

niretzat eta edozeinentzat etxean Euskadiko elastikoa izatea.

## HERRIKO PILOTARIEN ARTEKO TXAPELKETA

Duela urte batzuetako ohitura berreskuratu asmoz, herriko pilotarien arteko txapelketa antolatu da. Bide batez, urrian hasiko den Gipuzkoako Txapelketa prestatzeko entrenamendu egokia izango da. Ostiraleko 22:00etatik aurrera pilota partida ikusgarriak ikus ahal izango ditugu herriko frontoian. Irailaren 13an, honako hauek: Infantiletan, Olaizola-Iratorza, Furundarena-Arillagaren aurka. Eta Eñaut Esnaola-Bengoetxea, Pulido-Esnal bikotearen aurka. Jubeniletan, Portu-Iturralde, Orena-Iraolaren aurka. Senior mailan azkenik, bi partida: Huizi eta Olaizola pilotariak, bate-tik; Santxo eta Landa, bestetik.



# Santueneea laster festetan

**U**dazkenaren atarian, festa giroa Santuenez jabetuko da. Oporrei agur esan eta ikasturte berriari ongi etorri beroa egiteko aukera eskaini digute Ibai Ondo elkarteak kideek. Dena prest dago. Ea orain eguraldiak laguntzen duen eta jendea ere hurbiltzen den. Auzoan egiten diren jaiak badira ere, antolatzaileek lerro hauen bidez herri osoa gonbidatu nahi dute.

1999. urtetik hona Ibai Ondo Elkartea da Santueneako jaietz arduratzen dena. Lehen auzoko plazan egiten ziren ospakizun gehienak baina orain Ibai Ondo elkartearen ataria da jaien gune nagusia. Giro polita egon zen iaz, gune jasoagoa geratzen baita. Aurten formula berdina errepikatu dute.

Enrike Uli antolatzailearen esanetan auzo bazkaria da arrakasta gehien duen



IRAILAREN 21EAN HASIKO DIRA SANTUENEAKO JAIAK.

ekitaldietako bat. Aurten sagardotegiko menua izango da nagusi: tortila bakaila-oarekin, bakailaoa piparrekin, txuleta eta postrea. Kafea, kopa eta puroa ez dira faltako. Euria egingo balu, auzo bazkaria Aialde Berri sagardotegian egingo litzateke. Txartelak jada salgai dira Ibai Ondo elkartearen eta auzoko tabernetan. Hori bai, irailaren 15a baino erosi beharra daude. Beraz, ez utzi azken ordurako eta anima zaitetz.

## Nagusi zein helduentzako jaiak



GAZTELU PUZGARRI BAT IPINIKO DUTE FESTETAN.

**G**aztetxoena gustura ibiliko dira Santuenean. Izan ere, asko dira euren neurri antolatu diren ekitaldiak: giza futbolina, non partehartzaileek jokalariek lanetan jarri beharra duten. Hori bai, besoak loturik, futbolinean bezala. Puzgarriak, buruhaundiak, apar jokoak... ondo pasatzeko aukera anitzak dira jai egitarauan topatu ditugunak. Halaber, ikustekoak izango dira igandeko herri kirolak. Iparraldeko frogak zein aizkolarien saioa, alegia.

Jai egitaraua,  
egunez egun

### IRAILAK 21

#### LARUNBATA

10:00etatik 13:00etara futbolina eta ludoteka.

12:00etan toka txapelketa trikiti-xak giroturik.

13:00etan buruhaundiak.

16:00etatik 18:00etara futbolina eta ludoteka.

16:00etan mus txapelketa (izen ematea 15:30ak arte).

18:30etan ernel! aparra!!!

20:00etan buruhaundiak eta sardin jana Tximeleta txarangak giroturik.

23:00etan eta goizalderarte Imanol D.J.

### IRAILAK 22

#### IGANDEA

12:00etan herri kirolak:

Iparraldeko frogak, aizkolariak.

14:30etan auzo bazkaria.

(Txartelak salgai auzoko tabernetan eta Ibai Ondo elkartearen. Epea: irailak 15).

19:00etan buruhaundiak eta piper jana txarangak giroturik.

**OHARRA:** euria egingo balu, auzo bazkaria Aialde Berri sagardotegian izango da.

Antolatzailea: Ibai Ondo Elkartea.

**BORDATXO  
EDARITEGIA**

PINTXO BEREZIAK

Aritzeta, 2 Tel.: 943 37 10 42




**TXIRIBOGA  
TABERNA**

pintxoak, bokatak  
eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 Telf: 943 36 13 98

**JUANTXO**

burdindegia  
kale nagusia 10 Usurbil  
37 00 08



## Berriro ikas -



Amaitu dira oporrak!


Tira, aurrerantzean goiz jeiki behar... Ikastolara bueltatzeko unea iritsi baita, eta bide batez, gelako lagunekin biltzeko garaia. Aurten, gainera, Agerialdeko hainbat gela berrituta topatuko zenituzten.

Noaua! ere berritua bueltatu da. Hemendik aurrera, orritxo batean bilduko ditugu ikas-turte honetako kontu guztiak. Gustuko dituzuen denborapasak eta hitz jokoak ere, tarte honetan topatuko dituzue.

Barruan daude izenak.



B O T I L A T X E U  
 A R R E I X A B E L  
 S A H I B O E L E K  
 U K U L U S T I R A  
 S A G A R R A A U I  
 E T X O U S L T I O  
 B I L O A T O S O L  
 R L B A I A K D U A  
 S U G A R A O L T B  
 K A T I A E X T E B  
 L U K A R I T U S I  
 A S O K A Z O K I L



# Lehiaketa !!



**LEIHO HAUEK DAUDEN ETXEAREN IZENA JAKIN NAHI DUGU, EZETZ ASMATU**

Asmatzaileen artean liburu bat zozketatuko dugu, Joseba Sarrionandiaren "Hitzen ondoeza".

# Denborapasak !!

	* Izena	Ginekologia mediku	Beldurra	Hegazti mota	Naizen hau
	Menderatu, otzandu	Lohi, likits	Nor	Bazter	
			Jarduera		
	Txingurri, inurri				
Gipuzkoan, zatoz					
Aurkaria	Hautatu				Infin., irabazi
Gehitu, itsatsi	Ardi, hitz elkarketan				
				Kontso-nantea	Iodoa
				Adi ezazu!	U birritan
Zoro		Noketa			Oinarrizko edari
* Deitura		Euskal alderdi ohia			Hitlerren jarraitzaile
				Tribua	
				Kontso-nantea	
2		Horma, jela			Boroa
Marfila		Iparretarrak			Errep., gorotza
				Gaitu	
				500	
Euskaraz eta kitto!		Bizkaieraz, duk		Joan den urtean	



### Eusko Tren-en neguko tren ordutegia

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
05.47*	06.03*	06.20*	06.08*	06.24*	06.39*
06.17*	06.33*	06.50*	06.38*	06.54*	07.09*
06.47*	07.03*	07.20*	07.08*	07.24*	07.39*
07.17	07.33	07.50	07.38*	07.54*	08.09*
07.47	08.03	08.20	08.08	08.24	08.39
08.17*	08.33*	08.50*	08.38*	08.54*	09.09*
08.47	09.03	09.20	09.08	09.24	09.39
09.47	10.03	10.20	10.08	10.24	10.39
10.47	11.03	11.20	11.08	11.24	11.39
11.47	12.03	12.20	12.08	12.24	12.39
12.17*	12.33*	12.50*	12.38*	12.54*	13.09*
12.47	13.03	13.20	13.08	13.24	13.39
13.17*	13.33*	13.50*	13.38*	13.54*	14.09*
13.47	14.03	14.20	14.08	14.24	14.39
14.17*	14.33*	14.50*	14.38*	14.54*	15.09*
14.47	15.03	15.20	15.08	15.24	15.39
15.17*	15.33*	15.50*	15.38*	15.54*	16.09*
15.47	16.03	16.20	16.08	16.24	16.39
16.17*	16.33*	16.50*	16.38*	16.54*	17.09*
16.47	17.03	17.20	17.08	17.24	17.39
17.17*	17.33*	17.50*	17.38*	17.54*	18.09*
17.47	18.03	18.20	18.08	18.24	18.39
18.17*	18.33*	18.50*	18.38*	18.54*	19.09*
18.47	19.03	19.20	19.08	19.24	19.39
19.17*	19.33*	19.50*	19.38*	19.54*	20.09*
19.47	20.03	20.20	20.08	20.24	20.39
20.17*	20.33*	20.50*	20.38*	20.54*	21.09*
20.47	21.03	21.20	21.08	21.24	21.39
21.47	22.03	22.20	22.08	22.24	22.39
			22.38	22.54	23.09

\* Astegunetan bakarrik

### Eusko Tren-en neguko autobus ordutegia

Donostia	Urbil	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Urbil	Donostia
07.40		08.05	08.25	06.45	07.05		07.30
08.00		08.25**		06.45	07.05	07.10	07.30
08.00	08.25	08.35	08.55	07.15	07.35		08.00
08.40		09.05	09.25	07.45	08.05	08.15	08.40
09.00	09.20	09.30		08.15	08.35		09.00
09.00	09.25	09.35	09.55	08.45	09.05	09.10	09.30
09.40		10.05	10.25	08.45	09.05	09.15	09.40
10.00	10.25	10.35	10.55		09.30	09.35	10.00
10.40		11.05	11.25	09.45	10.05		10.30
11.00	11.25	11.35	11.55	09.45**	10.05	10.15	10.40
11.40		12.05	12.25		10.30	10.35	11.00
12.00	12.20	12.25**		10.45	11.05		11.30
12.00	12.25	12.35	12.55	10.45	11.05	11.15	11.40
12.40		13.05	13.25	11.45	12.05		12.30
13.00	13.20	13.30		11.45	12.05	12.15	12.40
13.00	13.25	13.35	13.55 #	12.45	13.05		13.30
13.40		14.05	14.25	12.45	13.05	13.15	13.40
14.00	14.20	14.30*			13.30	13.35	13.55*
14.00	14.25	14.35	14.55	13.45	14.05		14.30
14.40		15.05	15.25	13.45	14.05	14.15	14.40
15.00	15.20	15.30			14.30	14.35	15.00
15.00	15.25	15.35	15.55	14.45	15.05		15.30
15.40		16.05	16.25	14.45	15.05	15.15	15.40
16.00	16.25	16.35	16.55		15.30	15.35	15.55*
16.40		17.05	17.25	15.45	16.05		16.30
17.00	17.25	17.35	17.55	15.45	16.05	16.15	16.40
17.40		18.05	18.25		16.30	16.35	17.00
18.00	18.20	18.30		16.45	17.05		17.30
18.00	18.25	18.35	18.55	16.45	17.05	17.15	17.40
18.40		19.05	19.25	17.45	18.05		18.30
19.00	19.20	19.25**		17.45	18.05	18.15	18.40
19.00	19.25	19.35	19.55	18.45	19.05		19.30
19.40		20.05	20.25	18.45	19.05	19.15	19.40
20.00	20.20	20.30			19.30	19.35	20.00
20.00	20.25	20.35	20.55#	19.45	20.05		20.30
21.00	21.20	21.25	21.45	19.45	20.05	20.15	20.40
21.00	21.25	21.35	21.55	20.45	21.05	21.15	21.40
22.15	22.35	22.45	23.05	21.15	21.35	21.40	22.00
22.00	22.25	22.35	22.55	21.45	22.05	22.15	22.40
22.30	22.55	23.05	23.25	23.15	23.35		00.00
00.00		00.25	00.45	01.15	01.35		02.00
02.00		02.25	02.45	03.15	03.35		04.00
04.00		04.25	04.45	05.15	05.35		06.00
06.00		06.25	06.45				

\*\*Aiaraino # Larunbatetan, Orion autobus aldaketa Aiara

Soilik larunbata gauzez      Asteburutan larunbat lanegunetan

## Goardiako farmaziak

- **IRAILAK 13, OSTIRALA**  
E: **Acha-Orbea** Hipodromo etorbidea, 6 Lasarte  
G: **Gorospe** Rikardo Arregi, 12 Andoain
  - **IRAILAK 14, LARUNBATA**  
E: **Acha-Orbea** Hipodromo etorbidea, 6 Lasarte  
G: **OA** Kontzeju Zarra, 11 Usurbil
  - **IRAILAK 15, IGANDEA**  
E: **Acha-Orbea** Hipodromo etorbidea, 6 Lasarte  
G: **OA** Kontzeju Zarra, 11 Usurbil
  - **IRAILAK 16, ASTELEHENA**  
E: **Urbistondo** San Frantzisko, 1 Lasarte  
G: **Zatarain** Arteta, z/g Andoain
  - **IRAILAK 17, ASTEARTEA**  
E: **Gil** Kale Nagusia, 24, Lasarte  
G: **Ansa** G. Ondarreta, Andoain
  - **IRAILAK 18, ASTEAZKENA**  
E: **De Miguel** Kale Nagusia, 32 Lasarte  
G: **Arzallus** Aita Larramendi, 16 Andoain
  - **IRAILAK 19, OSTEGUNA**  
E/G: **Vidaur** Jaizkibel Plaza, 2 Lasarte
  - **IRAILAK 20, OSTIRALA**  
E/G: **De Miguel** Kale Nagusia, 32 Lasarte
  - **IRAILAK 21, LARUNBATA**  
E: **Urbistondo** San Frantzisko, 1 Lasarte  
G: **Tanco** San Juan, 36 Urnieta
  - **IRAILAK 22, IGANDEA**  
E: **Urbistondo** San Frantzisko, 1 Lasarte  
G: **Tanco** San Juan, 36 Urnieta
  - **IRAILAK 23, ASTELEHENA**  
E/G: **Rodriguez** Kale Nagusia, 42 Usurbil
  - **IRAILAK 24, ASTEARTEA**  
E/G: **Gil** Kale Nagusia, 24, Lasarte
  - **IRAILAK 25, ASTEAZKENA**  
E/G: **Acha-Orbea** Hipodromo etor., 6 Lasarte
  - **IRAILAK 26, OSTEGUNA**  
E/G: **Urbistondo** San Frantzisko, 1 Lasarte
  - **IRAILAK 27, OSTIRALA**  
E: **Urbistondo** San Frantzisko, 1 Lasarte  
G: **Iturralde** 13 Poligonoa, 9 Usurbil
  - **IRAILAK 28, LARUNBATA**  
E: **Vidaur** Jaizkibel Plaza, 2 Lasarte  
G: **Bilbao** Urbietan, 7 Hernani
- E: egunez. G: gauzez (21:00etatik 09:00etara).  
E/G: Egunez eta gauzez.

## Udaltzaigoaren ordutegia

- **ASTEGUNETAN**  
6.00/22.00
- **ASTEBURU ETA JAIEGUNETAN**  
7.00/22.00

GAINONTZEKO ORDUAK TELEFONAZ

ATEA ITXITA AURKITZEN BADUZU

DEITU TELEFONO HONETARA

943 361 112  
656 799 850

## Datorren Noaua!

Iraila							
Astel.	Asteaz.	Asteaz.	Osteg.	Ostira.	Larun.	Igand.	
							1
2	3	4	5	6	7	8	
9	10	11	12	13	14	15	
16	17	18	19	20	21	22	
23	24	25	26	27	28	29	

● Hurrengo alea

## Bai esan?

- **Udala**..... 37 19 51
- **Udaltzaingoa**..... 36 11 12
- **Obrak eta Zerbitzuak**..... 37 01 48
- **Anbulategia**..... 36 20 13
- **Udarregi ikastola**..... 36 12 16
- **Udarregi (Kalezar)**..... 36 45 00
- **Agerialde ikastetxea**..... 36 38 95
- **Oiardo kirolegia**..... 37 24 98
- **Zumarte**..... 37 15 94
- **Etumeta**..... 37 20 01
- **Taxi geltokia**..... 36 21 78
- **D.Y.A.**..... 46 46 22
- **Ertzantza**..... 112
- **Suhiltzaileak**..... 112
- **Larrialdiak**..... 112
- **Anbulantziak**..... 112
- **Posta Kutxa**.....
- **Gure Pakea**..... 37 32 28
- **Gure Elkartea**..... 37 17 51
- **Arrate egoitza**..... 36 63 40
- **Eusko Tren**..... 47 09 76
- **Noaua! aldizkaria**..... 36 03 21
- **Bake epaitegia**..... 37 23 36
- **Oa farmazia**..... 36 12 17
- **Iturralde farmazia**..... 36 33 95
- **Zubietako Batzarra**..... 37 20 77
- **Argindarra (Iberduero)**..... 47 09 76

## Oharrak

## Txerrimunik ordainetan

### ETXEBIZITZA

- Alokairuan dagoen pisua edo apartamentua erosiko nuke. Telf: 943 364469.
- Baju edo ganbara bat erosiko nuke. Deitu iluntzean. 943 36 02 13
- Atxegalden pisu bat salgai. Beheko Kale, 6. 2 Esk. 943 37 17 59.

### SALEROSKETA / GARAJEAK

- Munalurran garaje bateko marra salgai. Telf. 943 362424
- Motoak sartzeko lokala alokatzen da. Gazteentzako txoko bat alokatzen da. Telf. 656 759 583.
- Garaje itxia salgai Etxealdian. 943 373185 telefonora deitu.
- Galtzaragaina elkartean bi garaje itxi daude salgai. 943 360 273, Javier.
- Garaje itxia salgai Etxe-zurian (herri sarreran). Tarteko oina eta ate automatikoak ditu. Prezio onean; 2.200.000 pzta. Telf: 687 40 62 09
- Galtzaragainan 20 m2-ko garaje itxi bat salgai. Berritua, oso txukuna. Goiko pisuan. 678 81 52 77 (arratsez).

### LANPOSTUAK

#### Lan-eskaerak

- Neska bat eskaintzen da haurrak zaintzeko. 943 366485.
- Pertsona bat eskaintzen da haurrak zaintzeko gauzez. 943 371447 (Belen).
- Pertsona bat eskaintzen da arratsaldez bi orduz umeak zaintzeko. Telf: 647 220 966 (Mari Karmen).

#### Lan-eskaintzak

- Emakume bat behar da etxeko lanak egiteko. Irailetik aurrera, 9:00etatik 14:30etara. 943 360 096 /650 947 142.
- Udarregi ikastolan kirol begiraleak behar dira. Tel: 943361216/ 943370645.

- Tabernari bat behar dugu. Interesatuak deitu telefono hauetara: 943 360 217 - 649 211 665.
- Tabernari bat behar da Txurrut tabernan lan egiteko. Interesaturik bazaude, deitu 943 36 00 80 telefonora.
- Tabernari bat behar dugu Antxeta Jatexean lan egiteko. Deitu: 943 370 344.

### BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Yamaha XJ 600 motoa salgai. 225.000 pezeta. Telf. 943 366222.
- Ford Escort bat salgai. SS-AJ, motorra berritua. 100.000 pta edo 601euro. Tf: 943 650619
- Opel Corsa bat salgai, SS-AL. 300.000 pezetan, kuota eta transferentzia barne. 943 37 26 92.
- Ford Escort Ghia TD familiarra salgai. SS-BB, CD ekipoduna. Telefonoak: 657 796 777 / 943 37 19 54.
- Volkswagen Santana bat saltzen dut. Telefonoa: 670 987 921 (Jon).
- Volkswagen Golf GTI II saltzen dut, SS-AL. 15`llantak, irrati-kargadore Alpine... extrak. 2.000 euro. Telefonoa: 649 322 873.
- Scooter bat saltzen da, 125cc. Interesatuak deitu 607 23 32 55 telefono zenbakira.
- Vespa bat salgai, 200-TX markakoa. Telefonoa: 943 37 03 89.
- Txakurkumeak salgai. 3 hilabeteko setter ingelesak; desparasituak eta bakunatuak. Guraso ehiztariak. 180 euro. Tel: 679 207 156.
- Bigarren eskuko soinu txikia erosiko nuke, 120 bajukoa. Tel.: 943 37 03 59.
- Andazpe elkartean bazkideak behar dira. Baldintzak jakin nahi badituzu deitu: 943 36 54 66.

#### Oharrak, doaneko zerbitzua:

Noaua! Kultur Elkartea - Borda Berri, 3  
Eguzkitzaldea - 20170 Usurbil  
noaua.k.e@euskalnet.net



Zorionak **Praixku!**  
80 urte egingo dituzu laister.  
Zorionak eta ondo pasa seme-alaba eta biloben partez!



Zorionak **Esther!**  
Irailaren 28an 46 urte egingo dituzu. Segi orain bezain alai. Zorionak eta ondo pasa!



Zorionak **Xabier eta Ramon!**  
Ez pentsa zuen urtebetetze eguna ahaztu dugunik.  
Besarkada bat guztion partez!



Zorionak **Maika!**  
Irailaren 9an hogeitamapiko urte egin zenituen, etxekoen partez zorionak eta muxu asko!

**Hona hemen edonor zoriontzeko tartea. Ekarri beharrekoa, testua eta argazkia. Doaneko zerbitzua. Hurrengo alea: irailak 27. Ekartzeko azken eguna: irailak 22.**

### JAIOTZAK

- **Aimar de Moura Arrojeria.** 2002-VII-22. Ariztitxo kalea.
- **Nagore Unsain Calvo.** 2002-VII-25. Kale Nagusia.
- **Aitor Iñarra Gonzalez.** 2002-VII-29. Erreka Txiki.
- **Ibai Rincon Gomez.** 2002-VIII-7. Erreka Txiki.

### HILDAKOAK

- **Miguel Iraregi Vidal.** 2002-VII-26 Sendategian.
- **Catalina Tendero Galán.** 2002-VIII-15 Txokoalden.

## Agenda !!

### IRAILAK 13 - ostirala

Pilota Txapelketa, 22:00etatik aurrera frontoian.

### IRAILAK 20 - ostirala

Bertso afaria Xabier Silveira eta Mantxirekin. 21:00etan Gaztetxean. Txartelak Txiriboga tabernan hilaren 18-  
ra arte.

### IRAILAK 21 - larunbata

Santueneako festak. 10:00etatik 13:00etara futbolina eta ludoteka. 12:00etan toka txapelketa. 13:00etan buruhaundiak. 16:00etatik 18:00etara futbolina eta ludoteka. 16:00etan mus txapelketa. 18:30etan erne! aparra!!! 20:00etan buruhaundiak eta sardin jana Tximeleta txarangak giroturik. 23:00etan Imanol D.J.

### IRAILAK 22 - igandea

Santueneako festak. 12:00etan herri kirolak. 14:30etan auzo bazkaria. (Txartelak salgai auzoko tabernetan eta Ibai Ondo elkartean. Epea: irailak 15). 19:00etan buruhaundiak eta piper jana txarangak giroturik. Oharra: euria egingo balu, Aialde Berrin. Antolatzailea: Ibai Ondo.

### IRAILAK 27 - ostirala

- Gudari Eguna dela eta, manifestazioa Jose Martin Sagardia plazan, udaletxe aurrean, 20:00etan.

- Euskal presoak Euskal Herriratzeko eskatuz enkartelada Etxerat!-ek antolatuta. Arratsaldeko 20.00etan.

## Literaturaren Txokoa



### “Xake Mate”

**X**ake Mate eleberrri laburra da luzeraz, baina indartsua sortzen duen giroz eta intentsitatez. II. Mundu-Gerraren osteko Alemaniara garamatza nobela honek, bertako hiri porrokatu batean bizi baita pertsonaia nagusi eta kontalaria: mutiko bakarti bat, gerrako miserietan hanka bat galdu eta gurgil-aulki batean dabilena. Izaeraz isil eta lotsatia, ez du interesik ez erraztasunik bere adinkideekin harremanetan sartzeko, eta



xake-jokoan bilatuko du beharrezko aterpea. Hala, xakea bihurtuko du ez bakarrik denbora-pasa, baizik mundua ulertzeko modu, eta geroxeago baita borrokarako eskola ere.

#### Fitxa teknikoa:

Izena: Xake Mate.

Egilea: Alberto Ladron Arana.

Argitaletxea: Elkarlanean.

Orrialdeak: 132

Neurriak: 21,5x14 cm

Salneurria: 10,00 euro

## Egin kontu !!

### Nafarroa Oinez-en aldeko herri bazkaria

**I**railaren 28an, larunbata, eguerdiko ordubitan, herri bazkari bat izango da Aitzaga elkartean, Tuteran ospatuko den muga guztien gainetik lelopean Nafarroa Oinez 2002 antolakizunaren alde. Bazkariaren bukaeran, urte osoan zehar Usurbilen egin diren salmenten (erropak eta kontserbak) diruak entregatuko zaizkie Tuteratik etorriko diren guraso-ordezkariei. Helburua 6000 eurotan jarri zen,

eta oraindik ere salgai dira produktu hauek interesa duen edonorentzat. Menua hauxe duzue:

- entsalada berezia
- marmitakoa
- postrea
- kafea, purua, eta...

Bazkari-txartelak salgai izango dira irailaren 25 bitartean, 13 eurotan, honako tabernotan: Txirristra, Txiriboga eta Aitzaga.

*Xinkildegia*  
Lentzeria,  
gizonezkoentzat arropa,  
haurren jantziak,  
eterako behar dituzunak  
Aritzeta 1 behea,  
20170 Usurbil ☎ 943 36 17 87

**TXURRUT**  
**TABERNA**  
Giro eta musika atsegina!  
San Esteban kalea, 1  
Tel: 943 36 00 80

**P A T R I**  
J A T E T X E A  
Eguneko bazkariak  
eta afariak  
Nagusia 6, 20170 Usurbil  
Tel.: 943 36 27 25 (Gipuzkoa)



# Noaua! jantzi berriarekin

**N**oaua! hamaboskaria martxan jarri zela zazpi urte pasa dira eta dagoeneko bere lekua egin du herrian. Denbora, ordea, aurrera doa eta aldizkaria garai berrietara egokitu beharraz jabetu gara. Horregatik, diseinua aldatzarekin batera, aldizkaria bera ere gaurkotu dugu.

Lehen orrian bertan aurkituko duzu aldaketa nabarmenena. Izan ere, Noaua!ren logoa edo mantxeta aldatu baitugu. Orain arte izan duen fondo beltza kendu eta kolorea eman diogu Noaua!ri. Gainera, lehen orriak edo azalak, albiste nagusiarekin batera, leiho txiki batean bigarren mailako albiste bat ere jasoko du.

Aldizkaria ireki eta bertan "Atariko haizea" izenarekin bataiatu dugun orria izango duzu. Atal honek kredituak, aurkibidea eta txirrikitutik azpisailak izango ditu. Azken honetan hamabostero-hamabostero herriko argazki zahar bat ikusi ahal izango duzu.

Aurrera jarraituz, iritziarekin egingo duzu topo. Bertan Noaua!ko zutabegi-learen artikulua irakurri ahal izango duzu, baita aldizkariara iristen zaizkigun eskutitzak ere. Kanpoko idatzirik ezean, Zer Diyo atala izango du.

"Herorrek esan" duzu hurrengo saila. Hemen herritarrak zarete protagonistak, zuei eskainitako atala baita, hiru azpiatal medio; Berriketan, Inkesta eta



OLATZ GOENAGAK EGIN DU NOAUA!  
ALDIZKARIAREN DISEINU BERRIA

Kate Motzean.

Bestalde, eta orain artekoari eutsiz, seitik bederatzi arteko orrialdeetan auzoetako notiziak jasoko dira. Kontzeju Txikiak ere badu tarterik, bi orrialde izango ditu beti aurrerantzean. Udaleko albisteak jasotzarekin batera, zuk zeuk ere edozein galdera luza diezaiokezu hemendik aurrera udaleko norbaiti, bai zinegotzi edo langileei, "Galdeiozu" azpiatalaren bitartez.

## Haurrei eskainitako atala

Porrusalda, Erreportaia, Herriko taldeak, Izerdi Patsetan, Markesaneko petritetik, Pil-pilean atalak ere, beren artean txandakatuz, ez dira faltako aldizkari berrian. Baina hauekin guztiekin batera, oso berezia den atal bat badago: Noaua! Txiki. Usurbilgo haurren txokoa dugu atal hau, informazioaz baino aisiaz gehiago duen atala.

Berrikuntzekin jarraituz, badago beste bi gauzatxo aipagarri ere. Izan ere, orain arte ez bezala, hemendik aurrera zine kartelera irakurri ahal izango baituzu Noaua!n. Gainera, liburu nahiz musika nobedadeen berri jasoko duzu.

Hemendik aurrerakoa zuri dagokizu. Irakurri eta gozatu aldizkariak. Gustokoa izatea espero dugu. Hala ere, iradokizunik baduzu, oraindik baduzu aukera, guk eskertuko dizugu.

www.noaua.com  
webgunea dagoeneko martxan

**G**ure komunikazio proiektua Gindartu eta osatu bidean sortu dugu www.noaua.com webgunea. Orain arte Noaua! hamaboskaria izan da gure informazio tresna nagusia. Baina, arestian esan bezala, gure burua garai berrietara egokitu nahi dugu, eta bestelako medio batzuk sortu eta erabiltzea, gaur gaurkoz, ezinbestekoa da. Eta www.noaua.com guneak horri erantzun nahi dio.

Webguneak hiru esparru ezberdin ditu. Ezkerreko guneak hiru esparru ezberdin ditu: batetik, Usurbilgo herriari buruzko informazioa kontsultatu ahal izango da; auzoak, herriaren bereizgarriak, artea, zerbitzuak, telefono interesgarriak eta abar. Bestetik, herriko taldeen eta Noaua! Kultur Elkartearen berri ere izango duzu, eta, honen barruan bazkide argazkia eta bazkide txartela aurkituko dituzu, besteak beste.

## Aldizkaria Interneten

Honekin guztiarekin batera Noaua! hamaboskariaren edizio elektronikoa ere ikusi ahal izango duzu. Bertan ale horri dagokion azala izango duzu eta bertan klikeatuta aldizkaria agertuko zaizu. Bestalde, erdiko gunean azken orduko albisteak azalduko dira. Notizi hauek denbora tarte laburra-ekin aldatuko dira.

Azkenik, eskubiko gunea zerbitzu gunea izango da. Bertan, agenda, aldizkariaren data, lan eskari eta eskaintzen berri emango da.

Orokorrean horixe da Noaua!ren web orrian aurkituko duzuna. Hala ere, hau hobetzea eta kalitatezko produktua egitea da gure erronka.



NOAUA!REN MANTXETA ERABAT  
ALDATU DA. ORAIN ARTEKO FONDO  
BELTZA KENDU ETA KOLOREA EMAN  
DIUGU.

## IGELTSERI -

### URDANTZI

Mugikorra: 649 435475  
649 435476  
Telf: 943 363370 - 943 361439

### ERRAZKIN IGELTSERITZA

☎ 943 37 26 79 ☎ 36 51 25  
☎ 629 420565 - 649 435470

[urki-mitxe@euskalnet.net](mailto:urki-mitxe@euskalnet.net)

### JOSE AIZPURUA UNANUE

Igeltseritza eta pintura

Teilatuen berritzea



Fatxadaren konponketa

Pintore kalea, 1 - 3.A  
LASARTE-ORIA  
Tel.: 36 17 83

Muna Lurra, 20 - 1.B  
USURBIL  
Tel.: 943 36 37 67

### JOSUE

Igeltseritza eta pin-

Juan Jose enea, 6  
Kalezar  
943 36 05 50 - 606 37

## ARozTE-

### BEREZIARTUA

Egurrezko eta  
aluminioegurrez-  
ko leihoak

Aginaga Telf: 943 37 15 71

### JOSE RAMON

Neurriko altzariak eta sukaldeak  
Errotaberri kalea, 3 Osinalde  
☎ 943 36 14 48 -  
Faxa: 943 36 69 45

### JOSE MARI IKUTZA

Ugartea, Kalezar

Telf eta faxa: 943 37 12

# USURBILGO OFIZIOAK

## ZURE ESKURA DITU-

## ITURGINTZA

### PORTULARRUME

BAINUKO ALTZARIAK



Telf: 943 36 46 37

## ESKAIOLAK

### EUGENIO NORIEGA

Erdiko kalea, 12  
Telf: 943 36 56 65- 616 92 60 25

### JOSE ANTONIO ELORZA

Galtzaragaina 2-2B  
Telf 943 37 34 70

### JOSEBA ARANGU -

☎ 943 83 00 72

### IÑAKI LATAILLADE

Iturgintza gas eta bero-  
gintza

INSTALAKUN -  
Mobila: 609 888021

## PINTURAK

### RAMON BARCENI -

- . Pikor pintura eta gotele lanak
- . Papereztatze- lanak
- . Pintura-lanak orohar

Mobila: 629 46 09 66

### FERNANDO PINTURAK

Enpapelaketak eta pinturak  
orokorrean

Telf: 943 36 60 19- 36 34 60

## ELEKTRIZITA-

### MIKEL IZAGI-

Goiz-Argi etxea, 37  
Kalezar  
Telf: 943 36 50 95

Gida honetan azal-  
du nahi baduzu,  
deitu 943 360321

Bizkarta 1, I.ESK.